

Royalek dio Europako Hizkuntza Gutxituen Karta sinatuko duela

ANGELUN (Lapurdi) izan da Segolene Royal Frantziako Presidentziarako hautagai sozialista, eta berak esan du Frantziako presidente egiten badute Europako Hizkuntza Gutxituen Karta sinatuko duela. Hari horri tiraka, Frantziako hizkuntza eta kultura gutxituen eskubideak defendatzen dituen elkarteak, Frantziako EBLULEk, sinadura bilketa hasi zuen otsailan. Presidentziarako hautagaiei hainbat eskaera egiteko. EBLULEk eskatu du batetik, erregioetako hizkuntzak eta kulturak irakasteko aukera, bestetik, irrati eta telebista zerbitzu publikoak (erregioko hizkuntza frantsesaren pare jarrita), eta hirugarrenik, erregio hizkuntzekin errespetuz ariko den ingurune publikoa. Hori horrela izateko, hautagaiei eskatu die Konstituzioa aldatzeko, Europako Hizkuntza Gutxituen Karta

izenpetzeko eta erregioei zein elkar-teei hizkuntzak eta kulturak babesteko beharrezko eskuduntzak eta baliabideak emateko. www.desdroitspournoslangues.org web gunean sina daiteke eskaera. Presidentziarako hautagaiei bidaliko zaien galdetegia ere irakur daiteke.

CAF-Elhuyar sarien XIII. edizioa

ELHUYAR FUNDAZIOAK banatu berri ditu euskarazko zientziaren dibulgazioan eragin asmoz sortutako sariak. Lehenengo saria irabazi du Migel Mari Elosegik *Ubideetako heriotzak. Energia berdearen ondorio beltza* lanagatik. Bigarren saria jaso du Ibon Canciok *Sexuen arteko lehia eta bisigia* artikulagatik. Hirugarren saria berriz, Arantzazu Villanuevak irabazi du *Zeri begira zaude? Begiei begira* lanagatik. Gazteentzako sari berezia Gorette Goikoetxeandiak jaso du *Xalla iragazgaitza: bike berria* artikulagatik.

Hizkuntza politikari buruz UEUn

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAK antolatuta *Hizkuntza Politika Gizartean* jardunaldia egingo da martxoaren 23an Donostian. Hainbat mahai-inguru egingo dituzte eta besteak beste, Patxi Baztarrikak, Jean Claude Iriartek, Erramun Osak, Bingen Zupiriak, Itziar Nogerasek, Iban Arantzabalek eta Pello Zubiriak hartuko dute parte.

Kontseiluak euskararen azterna gutxi topatu du zine aretoetan

EUSKAL HERRIKO 29 areto aztertuta euskara haurrentzako filmetan aurkitu du, bestela apenas. Dena den, Kontseiluak bi areto nabarmendu nahi izan ditu hizkuntz eskubideekiko duten jarrera eredugarriagatik: Mungiako Torrebilela aretoa eta Beasaingo Usurbe antzokia.

AHT eta ELA

“AHT ez da tren soziala” lemapean, ELAk informazio kanpaina abian jarri du AHTren proiektuaren kontra, eta obrak egingo diren eskualdeetan mobilizazioak ere egingo ditu. Lehena, aste honetan bertan izango da, martxoaren 9 ostiralean, Urretxun, eta bigarrena Durangon, 23an. Proiektua lehenbailehen gelditzea aldarrikatzen du eta gobernuko arduradunei, gizartean tregarraioaren eredia erabakitzeko elkarrizketa bideratzeko moduak ireki ditzaten eskatzen die. Hala, sindikatu honen kanpaina hau aurretiaz hainbat sindikatu, politikari eta herritarrek hasitako bideari gehitu zaie. Martxoaren 1ean, AHT Gelditu-k manifestazioa egin zuen Bilbon eta Batasunak berriz ere moratoria erreklamatu zuen. 100.000 kide dituen ELA bezalako sindikatu batek pauso hori eman

izanak enpresaburuei, alderdiei eta gobernuari balio beharko lieke, gutxienez, hausnar dezaten euren proiektu handiak inposatzeko duten moduaz. Eusko Jaurlaritzak haserre biazan ELA deskalifikatzea, auzia eztabaidatua dagoela esanez, gezurra da. Madrilek erabakia hartu eta Gasteizek onartu besterik ez baitzuen egin. Gobernuaren erantzun honek, berez, erabaki ofizialaz gain beste aukera batzuk egiaztatzen eta herritarrei galdetzeko ahulezia eta beldurra besterik ez du ezkututzen. Hala inposatu ziren Lemoiz, Itoizko urtegia eta Boroako zentral termikoa. Elkarrizketa eta herri kontsultarik gabe. Eta administrazioek ikasi gabe jarraitzen dute. Gainontzeko eragileen moduan, ELAk ere badu arrazoirik mobilizatzen.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Yves Matxikote EHEko kideak Euskaltzalea esana: “Frantses estatua maltzurra da biziki. Euskararen Erakunde Publikoa sortuz, euskaltzaleak eta euskalgintza ilusionatu nahi ditu, hizkuntza Kontseiluarekin egin nahi izan zuen bezala. Horrekin batera, euskalgintzari herritarrekiko konplexuak sartu nahi dizkio, estatuak urratsak ematen omen baititu eta euskalgintzak hori kritikatzeko, beti kezaka ibiltzea ‘gaizki ikusia’ litzatekeelako. Hori egiten duen bitartean, Parisen daraman diskurtsoak eta erakusten duen jarrerak, bere ekinbidea zein den erakusten digu: denbora irabazi hizkuntzen inguruko eztabaida horiek behingoz bukatzeko, hizkuntza guzi horiek (hizkuntza gutxituak) desagerrarazteko”.

Iñaki Zubizarreta Irusoin ekoiztetxe-koak Berrian esana: “Oso ondo dago haurrena zaintzea [ETB1en], baina haurrak hazi egiten dira. Hamaika hamabi urte bete arte ETB1 pizten dutenek, marrazki bizidunak ikusteko, gero ere jarraituko lukete pizten, beren gogoko telesailak eta filmak ikusteko”.

Zapaterok ETAre beharra du eta alderantziz

IÑAKI DE JUANAK bere osasuna osorik berreskuratzeko da orain espero behar dena, bere gose grebaren helburuak ondo baino hobeto bete dituenean. Baina bere helburuak betetzeaz gain, bere kasuak agerian utzi du Espainiako Gobernuak bake prozesuan jarraitzeko duen borondatea. Ez da unerik aproposena borondate hori norainokoa den zehazteko, baina bai behintzat borondate hori badagoela azpimarratzeko.

Oso deigarria den moduan PPK emandako erantzuna. Azken boladan ohituak ginen PPren batailoiak larunbatero kalean ikustera, indar handiz gainera, baina oraingo urratsa are eta esanguratsuagoa izan da. Norberari datorkion zalantza da, De Juanaren kasuan halako zalaparta atera duenak, ea zer ez ote lukeen egingo Espainiako Gobernuak berriz iragarriko balu ETArekin negoziatioetan jarraitzeko prest dagoela. Eta, aldi berean, ea zer helduleku eskaini beharko dion ETak Jose Luis Rodriguez Zapaterori honek negoziatio horri publikoki hel diezaión. Bitxia da, baina gatazkak konpontzeko prozesuetan sarri gertatzen den bezala, etsaiek elkarren beharra izaten dute. Zapaterok ENAMen beharra du bere legegaldaren gai izarra dena –Euskal Herriko gatazka bortitza konpontzearena– aurrera ateratzeko eta, bide batez, PSOE boterean mantentzeko. Eta ENAMek Zapateroren beharra du, datorren urteko Espainiako hauteskunde orokorretan PP PSOERI gailentzen bazaio negoziatioaren atea berriz urte luzez itxita geratuko delako.



Zapaterok oraingo bere keinua egin du eta ETArene da orain espero dena, azken bi asteetan aipatzen ari baita erakundea agiria kaleratzeaz delako. ETak ezin du errepikatu Barajaseko atentatua bere gain hartu zueneko mezua, balio erantsiren bat eman beharko dio agiriari, baina logikoa da beste urrats txiki bat izatea, ETA eta Gobernuaren arteko keinu elikatzea posible egingo duena.

ETak ez du su-eten 'iraunkorra' behin-betikoa egingo. Ezin du, eskatzen zaion bezala, borroka armatua utziko duela iragarri eta kito. Hori ez da errealista. Borroka armatua prozesu politiko baten ondoren uztea, hori da errealista eta horretarako prozesu hori keinuz elikatu behar da. Fase horretan gaudela dirudi. Azkenean, beste kontu bat izango da prozesu politiko horren edukiak noraino berrantolatuko dituen euskal gizartearen erabaki eskubidea eta lurraldetasuna. Baina gauza bedi lehenbizi arrakastaz prozesua eta hori beste eztabaida bat izango da. Iñaki de Juanarenean arras interpretazio desberdinak egin dituzte Espainiako Gobernuak eta ezker abertzaleak, ezta? Bada horixe.

ELIKATZE KONTUETAN urratsak ematen jarraitzen duena Batasuna da, oraingoan gehiago barrura begira. Anaitasuneko proposamenaren mamia ezagutzen eta alde horretatik ez da berrikuntzarik izan larunbatero ekitaldian.

Euskal Herriko hegoaldeko autonomia proposamenari begira, zehazteko dagoena da ea zer eskatzen zaion PSOERI prozesu politikoak arrakasta izan dezan, sozia-

listek ere –hemendik urte batzuetara bada ere– proposamen hori defendatu dezatela, edo, besterik gabe, aukera hori gauzatu ahal izateari ateak irekitzea. Bitxia bada ere, autonomia proposamena egin denean eta berau inguratu duen hausnarketan, ez da Espainiako Konstituzioa moldatu beharri buruzko aipamenik egin. Hori bera ere pista bat izan liteke, ezker abertzalean Konstituzioa moldatu beharria aldarrikapen historikoa izan baita.

MARKEL OLANOK ordezkatu du azkenean Jon Jauregi. Alderdi politikoetako barne miseriak aspaldian ez bezala gizarteratu dira EAJren barne gatazka honetan, baina egon hor daude beste askotan ere. GBBko barne oposizioak aizkorarekin erantzun du oraingoan, eta denak adierazten du aizkorakadak hor izango direla gutxienez 2008aren hasieran EBB berria hautatu arte. Harrigarria bada ere, EAJko sektore batzuek nahiago dute alderdiak datozen hauteskundeetan emaitza eskasak izatea, horrekin GBB ahultzea lortzen badute. Gizarteari begira hori da islatzen ari dena.